

## Prensa-oharra

### IK4-TEKNIKERek bere aurrerapen berriak aurkeztuko ditu Makina-erremintaren Biurteko Azokan

- ▶ *Zentro teknologikoa Bilbao Exhibition Centre (BEC) erakustazokako 1. pabilioiko C22 standean kokatuko da, eta makina berrietarako eta instalatuetarako 4.0 Industriako aplikazioak garatzeko proposamenak aurkeztuko ditu*
- ▶ *IK4-TEKNIKERek Laser for Manufacturing Lab aurkeztuko du, laserra fabrikazio aurreratuaren bektore gisa erabiltzeko egin duen apustua*
- ▶ *Zentroak tamaina handiko makinaren auto-egiaztapenerako patente-prozesuetan egin dituen aurrerapenak erakutsiko ditu*

---

(Eibar, 2018ko maiatzaren 24a).- Euskadiko [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoa aditua da industria-sektorerako manufacturing eta fabrikazio aurreratuan, eta erreferentea da makina-erremintaren eta ekipo-ondasunen eremuan. Bada, presentzia nabarmena izango du Makina-erremintaren Espainiako Biurteko Azokaren ([BIEMH](#)) 30. edizioan, maiatzaren 28tik aurrera Bilbao Exhibition Centre (BEC) erakustazokan.

Euskal zentroak erakustoki propioa izango du azokan, 1. pabilioian, C22 standean, eta hor aurkeztuko ditu makina-erremintaren sektorean egin dituen aurrerapen eta garapen teknologiko berriak.

#### **4.0 Industria: adimendun makinatarako teknologia ahalbidetzaileak**

Sektoreko euskal enpresen erronkei erantzuteko asmoz, eta 4.0 eremuetarantz aurrera egin dezaketen dagoeneko instalatutako makinatarako aplikazio adimendunen eta makina adimendun berrien garapena kontuan hartuta, IK4-TEKNIKERek berrikuntza-maila handiko teknologiak lantzen ditu, fabrikazio-ingurune digitalizatuak ahalbidetzen dituzten makina adimendunak fabrikatzera bideratuak. Horren ildotik, arlo hauetan garatu dituen soluzio

zehatzak aurkeztuko ditu azokan: automatizazio malgua, makina-prozesuaren modelizatua eta simulazioa (makina birtuala), makinaren egoeraren ezagutza (Health assesment), prozesuaren optimizazioa, eta makina-parkearen kudeaketa (Fleet management).

## **Ikusi bideoa**

### **Laserra fabrikazio aurreratuaren bektore gisa**

Era berean, zentro teknologikoak laser-teknologiaren esparruan daukan eskaintza globala aurkeztuko du azokan. Izan ere, lan horren barruan garatu du Laser Manufacturing Lab, doikuntzaren, kalitatearen eta beste hainbat arloren inguruan eskakizun-maila handi duten sektoreen fabrikazio aurreratuko premia espezifikoak ebaztera bideratutako irtenbide osoak ematen dituen ekimena.

Proposamenak hainbat fabrikazio-prozesu hartzen ditu barnean: hala nola, ekipoen eta osagaien diseinua eta fabrikazioa, fabrikazio gehigarria, ikuskapena eta neurketa, eta laser-teknologiaren arloko aholkularitza eta prestakuntza.

## **Ikusi bideoa**

### **Makina-erremintak automatikoki egiaztatzeke teknologia**

IK4-TEKNIKERek azokan aurkeztuko duen hirugarren garapena patente propioa duen irtenbide bat (“Integrated multilateration for machine tool automatic verification”) izango da. Makina-erreminta baten geometria lan-bolumen osoan automatikoki egiaztatzea da irtenbidearen helburua, eta, horretarako, Tracker laser-sistema sartu du makinan bertan, tresna bat balitz bezala.

“Teknologia horren bitartez, lan-bolumen osoan eta une oro modu automatikoan 0,1 mm-tik beherako zehaztasuna bermatu behar duten makina-erreminta handien egiaztapen automatikoarekin lotutako premiei erantzun ahal izango diegu”, ziurtatu du Unai Mutilbak, IK4-TEKNIKERen Ikuskapen eta Neurketako Koordinatzaileak.

Erakustoki horren bitartez, IK4-TEKNIKERek BIEMH azokaren edizio honetako bi proposamen handiak bateratu ditu: Alde batetik, laserra bektore bereizle gisa fabrikazio aurreratuan, eta, bestetik, 4.0 makina 4.0 Industriaren esparruan.

## Ikusi bideoa

### IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

### Informazio gehiago

---

////////////////////////////////////

**IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz**

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

**GUK | Eider Lazkano**

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////